

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko urriaren 6a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Bera • Lourdes Arretxea mexikarraren Bi munduren artean erakusketa ikusgai da kultur etxean

Maria Huarte • «Haurrek musikaz goza dezaten nahi dugu»



• JUANJO BALERDI

Argentinan eta Txilen bada nafarrak

Miguel Sanz Nafarroako presidenteak Argentina eta Txilera egin bidaian lurralde haietan nafar franko badela somatzen da. Argentinako Rosario hirian irailaren 6, 7 eta 8-an ospatu zen Nafar Etxeen 7. Topaketan eta lerrotan han izandako batzuen zerzeladak jaso dira.

Txilera jauzi egin zuenean Baztanaldeko nafarrak topatu genituen.

• IRENE ARRIZURIETA

Bera •

Mexiko margolanetan

Lourdes Arretxea mexikarraren
lanak ikusgai dira Kultur
Etxean urriaren 21a bitarte

Gaurdanik urriaren 21a bitarte, Lourdes Arretxea mexikarraren lanak ikusi ahal izanen dira Berako Kultur Etxean. Bi munduren artean erakusketak Lourdes Arretxeak gertutik ezagutzen dituen bi herrialdeetako jendearen irudiak biltzen ditu: Mexiko eta Euskal Herria.

EUSKAL HERRI OSOTIK BEZALA, Baztandik ere jende anitzek alde egin zuen Amerikara lan bila. Horien artean zeuden Lourdesen gurasoak ere. Elbetekoak jaitzez, Mexikora joan ziren, eta han jaio zen Lourdes. Han hazi eta hezitakoa da, baina gertutik ezagutu du Euskal Herria, eta Baztan bereziki. Lekarozkoa du senarra, eta eragina oraindik nabariagoa da. Bere lanetan bi alderdi horiek islatzen ditu. «Ni mexikarra naiz, baina euskalduna ere banaiz; bi munduak dira nireak, horregatik nago bi munduren artean», argitu dio NAFARKARIAri.

Erakusketak denetara 30en bat lan biltzen ditu, eta nagusiki Mexikoko jendearen aurpegiak ageri dira. «Horiek dira hobekien ezagutzen ditudanak, eta horiek landu ditut gehien. Egia da euskal herritarrak baino hobeki irudikatzen

ditudala mexikarrak», esan digu.

Kolore biziko lanak dira bereak, teknika ugaritan landuak. «Akuarelak eta olioak dira nagusi, eta bertze zenbaitetan teknika bat baino gehiago darrabiltzat elkarrekin. Baina hemen, jendeari arreta gehien sortu dion kontua zilar-punta teknikaz egindako lanak dira. Ez da batere ohikoa hemen», gehitu du.

32 urte baino ez ditu, eta dagoeneko Mexikoko kritikaren onespina jaso du. Artearen Historiako lizentziaduna da, eta hainbat ikastaro eta tailer jorratu ditu Mexikoko margolari onenekin. Mexikoko areto ezagunetan jarri izan ditu erakusketak, bakarka zein taldean, eta orain Euskal Herrira ekarri ditu lanak le-

hendabizikoz. Elizondon eduki ditu hiru astez, eta Beran ikusi ahal izanen dira jarraian. «Ilusioa egiten zidan nire lanak hemen erakusgai paratzeak, nire gurasoen eta senarraren sorlekuan. Elizondokoa hagitz ongi joan da, eta espero dut Berakoa ere bide beretik joatea». Hasieran kezkatu agertu zen Lourdes bere lanak Euskal Herrian izanen zuen harreraz. «Hemengo jen-

deak paisaia ikusi nahi du, ez dago ohitua aurpegiak ikustera eta margotzera. Baina jendeari gustatu egin zaio, seguruenik hagitz koloretsua delako».

Erakusketa egunero egonen da irekia, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara, eta urriaren 12 eta 15ean goizeko 10:00etatik 14:00etara.

→ Jon Abril

Atarrabia


Jaiak
igandea arte

ORAINDIK ERE UDAKO JAIEN zalaparta da gurean. Atarrabian iragan larunbatean hasi zituzten herriko bestak, eta heldu den igandea arte izanen dira jai giroan. Gaur, errate baterako, Atarrabia pilotalekuan koadrilen arteko X. Herri Kirol Lehiaketa egingen dute, 18:00etatik aurrera. Bi ordu geroago, Mikels taldeak dantza emanaldia eskainiko du Udaletxe plazan. Eta egunarekin akitzeko, 00:30etik aurrera, kontzertua izanen da Udaletxe plazan, PiLT, Kuto eta Flitter taldeen eskutik.

Larunbateko egitaraua zabala da oso, eta batez ere haurrentzako ekitaldiek osatzen dute. Zerbait nabarmentzekotan, erran dezagun Udalbatza Ttikikoei zapiak jarriko dizkietela 10:30ean, udaletxean, baita Alkate Ttikiarri makila eman ere. 11:00etatik aurrera, Bakearen parkean haurrentzako jolasak izanen dira (kart autoak, puzgarriak, txikitren pneumatikoa, ohe elastikoa...). Arratsaldean ere irekita egonen dira parke hauek, 16:00etatik aurrera. 20:00etan, Udaletxe plazan, haurrentzako mozorro dantzaldia egingen dute Iruñea Band taldearen laguntzaz.

Igandean, eguna bukatzeaz batera, akabera emanen zaie beste. Baina lehenago, hainbat ekitaldi izanen dira herritarren gozamenarako. Konparazione, 13:00etan, Udaletxe plazan, txistularien alardea izanen da; eta 17:30ean, plaza berean, Jorge Sanchez (Kuba) eta Diego Dana (Argentina) kantarien emanaldia.

→ Daniel Urrutia



Lourdes Arretxeak Mexikoko eta Euskal Herriko jendearen irudiak biltzen ditu bere erakusketan. • EGUNKARIA

ziutatea

ARITZ AGIRRE



Sanduzelaiko semaforoa gorritu bezain pronto hasi da Stefanen lana. Aspaldi ikasia du egin beharrekoa: ongi ikertu eta neurtua esaldi labur hunkigarriari gaineratu beharreko keinua. Arropa ere lagungarria da bere eginkizunerako: elurretako txano borobila, nortasunik gabeko kamiseta mauka motza eta kolorea galdutako praka zaharkituak.

Agudo egin du hiri sarbideko trafiko zaratsua eszenatokira salto, urbearen atariko paisajea baita bera ere, honezker. Oharkabea, lokartutako auto gidariaren esperoa asaldatu du, eta eskuin eskuaz klinex paketeak eskaini dizkio. Ahots apala erantsi dio ezpain mugimenduari, burumakur. Gidariak, hasierako ezustek eragindako erridikulua estali nahi izan du arrotasunez, begirada artez aitzinean mantenduz, harremana ukatuz, irudimenak sorturiko per-

tsonaia balitz bezala. Haatik, ikustezina izanagatik ere, gure mundukoa da Stefan, eta hortxe du aldi baterako lanpostua. Supermerkatuko klinexak erosteko gonbita ukatu du berriz ere gidariak, nahiz Stefanek auto lehiatilara burua hurbildu; alferrik, erritmo bakaerreko musika ozena entzutea besterik ez du erdietsi.


Berriz ere berde, eta atzera gorri. Klinex trafikanteak ni sarrarazi nau testuan. GLUPS! Azeleradorea instant batez sakatu eta orain ni nago semaforo gorriaren azpian. Aurrez aurre Stefan, klinexak erakutsiz, kartatan balego bezala. Niri dagokit partida jokatzea: burua makurtu eta pena ematea nire erantzuna, elkartasun ezaz erruki. Nire aurpegiak duintasuna galdu baitu bere miseria begiradaren aurrean. Sozik ez dudala ihardetsi diot. Zeharka ikusi du berak autoaren irrati azpiko zinten artean nire kartera lodi-

tua. Ondoko jarlekuan, berriz, autopistako neskak itzulitako txanponak.

Berdea ikusi bezain laster sakatu dut azeleradorea, Donibaneko aldaparen bila. Egindakoaren aitzakia eske, nire burmuina: aste osoko auto ilarak etorri zaizkit gogora orduan, garraiolarien protestak eta gasolindegian izandako esperientzia. «Gasolioaren igoerak aski hustu dit sakela, klinexetan txanpon apurrak gastatzeko ere!», iritzi diot. Eskatzeko baino gehiago, lapurtzeko garaia ei da, eta hari horretatik jarraitu du nire gogoetak: azken berriekin, lege berriekin, uste baino gehiagok pairatuko du gasolioaren igoera, eta halaber, gure herrian, batzuek garestiago ordainduko dute gasolioa esku artean eduki izana, baita gasolioa kontsumitzeko sekula paradarik izanen ez dutenek ere.

Klinex

Irulegi ●

Kaperera
eraberritua

Soroetako kaperera, XIII. mendekoa apika, gaur zabalduko dute, hiru hilabetez zaharberritzen aritu eta gero. ● CHRISTOPHE DE PRADA-SAMARUTTI

Herritar guztiak gonbitatu ditu Irulegiko Herriko Etxeak datorren igandean Soroetako kaperan. Izan ere, auzo honen kaperera zaharra eraberritua izan da eta estreinaldi ofiziala egingen da herritar guztien artean.

GOIZEAN, ASPALDIKO PARTEZ, meza bat eskainia izanen da kaperera txiki honetan. Eguerditan, berriz, herritar guztiak zikiroa elkarrekin jateko aukera izanen dute Jauregia izeneko bilgunean.

Soroetako kaperera zaharra eraberritzeko erabakia hartu zuen Herriko Etxeak duela bi urte. «Erai-kuntza ederra izateaz gain, herriko historiaren lekukotasuna salbatzeko bete beharra ikusi genuen», adierazi zuen Jacques Iruime, Irulegiko auzapezak. Altabada, herriak aitortu behar du ez dakiela xuxen noiz altxatua izan zen kaperera txiki hori. Izan ere,

miaketak egin arren, kaperaren agerpen bakan daude historiako testuetan. Auzapezaren arabera, kaperera XIII. mendekoa izan behar da, nahiz eta ziurtasunik ez izan. Garai horretan, Soroeta, Bursoritz eta Irulegi ziren hiru herri ezberdinak. Bakoitxak bazituen bere etxe nagusiak, zoinen inguruan antolatzen zen herriko bizia. Izenak dioenez, Jaureguia izeneko etxea zen Soroetako etxe nagusia, eta kaperera ondo ondoan eraikia izan zen. San Andres izeneko kaperera publikoaren aipamena aurkitzen da 1750an soilik. «Batzuk diote hilerria ere zegoela kape-

raren inguruan, baina ez dugu inolako arrastorik aurkitu», gaineratu zuen auzapezak.

Frantses iraultzatik landa, hiru auzoek bat egin zuten. Herriko aktibitate nagusiak Irulegin bertan antolatuak izan ziren. Mende honen hasieran, Irulegiko eliza eraberritua izan zenean Soroetako kaperera nolazbait ahantzia izan zen. Urtez urte, meza gehienak ematen ziren Irulegin eta meza bat bakarrik ematen zen urtean Soroetan, hots auzoaren benedikazioa egiteko. Azken urteotan, meza bakarra ere bertan behera utzia izan zen, kaperera egoera txarrean zelako.

Hiru hilabeteko obren ondolik, baleako biztanleek aukera izan dute kaperaren itxura berriaz gozatzeko. Izan ere, erai-kuntza bide nagusitik agerida, egunaz ala gauaz ere, argi bereziak ipiniak izan baitira. Lehengo estiloa atxikiz (erromanoa), harginek agertarazi dituzte harri zaharrak, lehengo emokadura errespetatuz. Atearen gaineko hizkiak ere hobeto agertarazi dituzte. Barnean ere, tindu berriak azpimarratzen du erretaula. San Andres eta San Laurentzioren eskulturek zaintzen dute Jesus Kristoren irudia (XVII. mendekoa dirudienez). Azkenean, aldarea berria ipini dute (denen gustokoa izanen ez dena dudarik gabe).

Obra guztien egiteko, Herriko Etxeak 450.000 libera behar izan ditu. Alabaina, eraberritze lanak eginez ez du arriskuan ezarriko herriko egoera ekonomiko. Hain zuzen, diru laguntza franko izan ditu (%80), izan dadila departamendua, frantses estatua edo Barne ministeritzatik.

→ Lutxi Fourcade



herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Txingo proiektua Sakanan

GUAIXE aldizkariak Sakanan sortu Txingo proiektuaren inguruko informazioa zabaldu du bere azken zenbakian. Amaia Amilibia kazetariak proiektu horretako arduradun Jone Areta eta Arantxa Gartzandiari egingako elkarrizketaren bidez: «Ikastolen Elkartek 3, 4 eta 5 urteko haurrendako material mardulak prestatu ditu azken urteotan Urtxintxa programaren baitan. Bi urteko haurrendako, berriz, ez zegoen beraiendako espreski prestatutako ezer. Materialik ezean, Arantxa Gartzandia eta Jone Areta

buru-belarri jarri ziren iazko ikasturtean, jokuak, abestiak, ipuinak, hormirudiak eta bestelakoak sortzen, moldatzen eta osatzen. Gainera, unitate didaktikoak sortu ahala, Andra Mari ikastolako 2 urtekoen gelan frogatzen zuen Arantza Gartzandiak bere ikasleekin. Aurretan, berriz, Jone Aretak Zangozako ikastolako 2 urtekoen gelan abiatuko du Txingo proiektua».

Aretak eta Gartzandiak proiektua azaldu dute *Guaixe*-n: «Hasierako asmoa zen bost unitate didaktiko egitea,

baina azkenean zazpi prestatu ditugu. Ondoko hauek dira: Gabonak; Musikariak gara; Ipuinak; Ihauteriak; Gure gorputza eta animaliak maite ditugu. Unitate didaktiko bakoitzean zera sartzen da: ipuina, hitz jokoak, hiztegia, arte lanak, musika entzunaldiak, soinu diskriminazioa eta hormirudiak...».

Andra Mari ikastolako esperientziak mintzatu dira: «Ikasturtearen hasiera zaila izaten da bi urtekoen gelan martxa hartu arte, baina bukaeran izugarri maite zuten Txingo. Txingurri txiki bat da Txingo».



**urdai
aren
mintzoa**

Xabier Larraburu

Zabalagaberri

Gure adiskide artistaren komuneko itogina izugarri handitu zen udazkeneko asteburu hartan, itogin zehatza eta bakarra izatetik kristoren txandria izatera iritsiz. Itogin hutsak, udako mementuko ekaitzekin pizten zen hark, sabaia arriskuan jarri zuen, erabat pitzaturik zegoela, euriz hanpatua. Eta adiskidea Saint-Exuperioren liburu batekin sartu zen komunera, eta, sabaitik ontzira erortzen ziren plisti-plasten artean, zera irakurri zion idazle handiari: «Hego Amerikako hiri hau maite dut. Batez ere maite ditut bere plazak eta plazetako arlauzen artean hazten diren belartxo niñiñoak. Ematen dute ondoko basoak hara bidalitako mezulariak direla, gizasemeek hiria noiz utziko zain eta erne dauden mezulariak. Egun horretan basoak berea dena berreskura dezan». Hau irakurri eta berriro ere sabaian agertzen ziren pitzadurei begira gelditu zen. Lerro haietan agertzen zenari egia zela iritzi zion. «Honako hau ez da itogin hutsa», bururatu zitzaion. «Ur tanta niñiñoak ikusten ditugun leku horretan, atean joka ari den Natura dago. Denbora kontua besterik ez da. Ontzi eta fregonarekin ibiliko ez banintz, hiru egunetan beheko pisuko sabaia izango zen kaltetua. Beste bost egun gehiago eta beste pisu bat beheago jaitziko zen ur tanta niñiñoa, zelatan, erne, ea Naturak aurrera egiten ahal duen adidi».

Gure adiskidea artista handia zen, mistikoa, Oteizazalea. Erabaki bat harturik eta denbora murritzeko edo, kontua da bere baliabide guztiak lanean jarri zituela, eta horrela, hurrengo egunean atean auzokide guztiak zituen kexuka. Atea ireki ez zenez, lanean baitzegoen, geroxeago «Abran Policia!» entzun ahal izan zuen. Urez betetako etxe batean aurkitu zuten, mahai gainean lanean bere zirriborro guztiekin. Sabaia zulatutik zeukan eta atxilotutik eraman zutenean eta etxeko ur txorota guztiak ea zergatik zabalik zituen galdetu ziotenean, zera erantzun zuen: «Txillidak Natura zulatu nahi zuen, baina hori huskeria besterik ez da. Nirea askoz ere sakonagoa eta mistikoagoa da: Nik Naturak etxea zulatzea nahi nuen».

Argentinan bada nafarik

Rosarion irailean ospatu zen Argentinako Nafar Etheen 7. Topaketan hainbat nafar bildu zen

Argentinako Rosario hirian irailaren 6, 7 eta 8an ospatu zen Nafar Etheen 7. Topaketan Buenos Aires, Mar de Plata, Mendoza, eta Rosarioko hainbat nafar bildu zen. Argentinara joan ziren aiton-amonen seme eta hilobek belaunaldiz belaunaldi Nafarroarekiko maitasuna eta ohiturak gordetzen dituzte oraindik, eta harreman estuak dituzte askok jaiotzen ikusi zituen lurrarekin.

ROSARIOKO HIRIA ARGENTINAKO BIGARREna da Buenos Aires hiriburuaren ondotik. Milioi biztanle pasatxo lekutzen ditu. Hiriburu bezain ederra eta munduari irekia ez den arren, bertako jendea harrera onekoa da oso. Bertako biztanleria gehiena Argentinara iragan mendean eta XX-ko lehenengo erdian joandako europarren ondorengoak osatzen dute, eta horien artean hainbat euskal herritar aurki daitezke, nafar etxean denek dute ahaideren bat Nafarroan edo beste herrialderen batean, eta haiekin harremanak mantentzen dituzte oraindik orain.

Horren lekuko garbia dira Elizondotik Buenos Airesera joandako Arraztoa familiakoak. Jose Miguel Arraztoak txikitan utzi zuen Baztan eskualdea baino hobekiago ezagutzen du Argentinako hiriburu, Errekoletas parkea eta kafea; italiarrak hasieran lekutu zituen Palermo Txikia auzoa; Argentinako azurki, beheki edota txerriki hoberena jateko parrila tokirik egokiena... Berak dioenez, Argentinak «oso ongi eta esku zabalik» hartu zituen euskaldunak eta asko dute eskertzeko. «Hemen bizitzan aurrera ateratzeko aukera paregabea eskaini ziguten» azpimarratu du. Tangoak kantatzen aparta, ez du Elizondo ahazten eta ahal duenean etortzen da familia ikustera. Bide bera jarraitzen dute bere hiru alabak, eta, batipat, Zeze Arraztoa gazteenak. Buenos Aireseko Nafar Etxeko dantza taldeko kidea, 20 urte ditu eta al baitaritza ikasten du. Bere ametsa duela bi urte Nafarroa egin zuen bidaia errepikatzea litzateke, eta ahal baldin balu, hemen geldituko litzateke.

Nola aldatzen diren gauzak

Parana ibaiak bustitzen du Rosario eta bertako portua Argentinako bigarren garrantzitsuena da. Rosarioko Nafar Etxeko gazteek aurrekoen ohiturak gordetzen jarraitzen duten arren, belaunaldi batetik besterako aldea handia. Horren adibide dira Valeria eta Lucas Magliochetti. Aita italiarra dute eta ama argentinarra, baina asko arakatu ondoren, jakin dute amaren aldetik badituztela ahaideak Nafarroan. Lucasek 18 urte besterik ez dituen arren, Rosario dantza taldeko zuzendaritza artistikoa da eta dantza klasikoa zein modernoa ikasten du. Bere harreba ere Nafar Etxeko dantza taldekoa da eta aurren euskara ikasten hasi da Zapirak bat euskal etxean, Nafar Etxean helduenek begi onéz ikusi ez arren. Entre Rios kalean

parez pare daude bi etxeak, beraz, ez du tarte handia egin behar izan euskal etxera hurbiltzeko. Helduen artean kasik harremanik ez duten arren, euskal etxean beti ateak «zabalik» izan dituzte, eta gazteen arteko erlazioa ezin hobea da. «Ni hasi naiz euskara ikasten eta nirekin batera beste batzuk ere hasiko dira ikas-turte berri honetan. Bi etxetan egon arren, historian arakatu ahala kultura bera dugula nabaritzen dugu, eta denborarekin bakarra izanen garela uste dut», dio Valeriak. Iritzi berekoa da bere anaia. «Gauzak aldatzea zaila da, pausoka lortu dugu Nafarroako dantzez gain, Euskal Herriko beste herrialdeetakoak sartzea. Zuzendaritzako gehienak eskubiar espainiar zaleak dira, baina gazteok irekiagoak gara eta gure jatorria aurkitzen saiatzen ari gara», gaineratu du. Lucasek dantzaren bidea hartu du eta Valeriak hizkuntzarena 10.000 kilometrorra dauden arbasoen kultura berreskuratzeko. Nola aldatzen diren gauzak.

→ Irene Arrizurieta

Valeria eta Lucas Magliochetti Nafar Etxeko dantzariak. ● IRENE ARRIZURIETA



Zeze Arraztoa Buenos Aireseko Nafar Etxeko dantzaria eta Jose Miguel Arraztoa elizondarra Argentinako hiriburuko Nafar Etxeko lehendakariordea.

● IRENE ARRIZURIETA



Rosarioko dantzariak Sanz presidentearen ekitaldi batean dantzatzen.

● JUANJO BALERDI

Simon Etxenike

● TXILEN BIZI DEN URDAZUBIARRA

«Euskaldunak ongi hartuak izan gara eta ez dute guretako errenkurik»

Simon Etxenike urdazubiarra 1952 etorri zen Txilerat Nafarroako Xaretako lurretan lekutzen den Iribarrengo borda baserria utzita, fortuna hobegoren bila. Hamahiru aurrideri zirenez, ezin guztiak mantendu. Euskal Herriko eskualde horretan XIX eta XX. mendearen lehenengo zatian ohikoa izan zen emigrazioa Ameriketara. Dena dela, Txilek badu berezitasun bat. Hemen dagoen Baztan eta Xareta aldeko taldea XX mendeko 50-ko hamarkadatik aurrera etorri zen eta Nafarroako Gobernuak egin Baztango Baletik Txilerako Emigrazioa XX. mendean liburuan aipatzen da 180 lagun hurbildu zirela eta 80 familia inguru osatzen dituztela.



● JUANJO BALERDI

■ Zergatik etorri zinen Txile-ra?

Orduan lan gutti zen han. Mexikora joan nahi nuen baina ez zuen pasajerik lortu eta Txilera etorri nintzen. Hamahiru aurrideri ginen eta bi hemen gira eta besteak han daude eta bi harreba moja dira.

■ Zertan aritzen zara Santiago hiriburuan?

Okina naiz eta okindegia dut. Orain lanean gutti aritzen gara baina oraindik bada zer eginik.

■ Euskal herritar asko daude zu bezala etorriak?

Baztanetik etorri ginen guztiak okindegiak dituzte. Hala ere, gutti gara ja. Lehena-goetatik gutti gara hiltzen ari direlako asko.

■ Txilen ezkondu zinen?

Bai, Elizondoko Maria Kruz Estilarrekin eta seme bakarra dugu eta bi hiloba. Semeak badaki euskaraz eta hilobak txikiak dira oraindik, batak bi urte du eta bertzeak urtea.

■ Joaten zara Urdazubirat?

Urtero joaten naiz. Joan den urtean izan ginen ekainean eta orai hurrengo hilabetean edo joatekoak gara.

■ Herrimina sumatzen duzu?

Bai gustora joaten naiz, aurrideri gehienak han ditugu-eta, bi hilda egon arren.

■ Hemen zaudeten baztandarrak ongi bizi zarete?

Bai franko poliki. Hala ere ez gara hainbertze, Arizkun eta Erratzukoak franko poliki dira, baina Urdazubiakoak hiru bakarrik gaude.

■ Euskal Etxera ez zarete joaten?

Bai joaten gara, baina gehiago etortzen gara Espainiako Parkera. Jende gutti joaten da harat.

■ Gaizki moldatzen zarete?

Ez. Dena dela, euskal etxean ez da euskal hiztunik. Denak hemengotarrak dira eta aitatxiak dira hangoak. Gabonetan joaten gara afaltzera eta harreman onak ditugu, baina gehiago etortzen gara Espainiako zentzura.

■ Urdazubira bueltatzeko asmorik baduzu?

Gelditzeko ez. Hemen ditugu gure negozioa, semea eta ttarrak (hilobak) hemen dire eta etxeak ere. Gu ez gara aterako harat. Semea gurekin aritzen da eta oso gustora gaude hemen.

■ Etorri zinekoe garaiak zailak izan ziren?

Hiru urte edo lau urte buruan bai. Lake-tzea kostatzen da eta hainbeste aurrideri izanik etxean eta ateratzea beharrezkoa zen. Hemeretzi urtekin atera nintzen eta barkuan bidaiatzen hilabetea pasa eta gero, Argentina eta Txile arteko mugan utzi ninduten bakarrik negu gorrian eta nolabait iritsi nintzen Santiagora. Emaztea ezagutu nuen gero. Osaben okindegira lanera etorria zen eta ezkondu eta gauza errazagoa izan zen. Euskaldunak ongi hartuak izan gara eta ez dute guretako errenkurik.

■ Nola dago Txile egun?

Pattal samar. Pinochetekin nahiko salsa da. Hobekiago egonak gara. @n4:n@n5:Harekin hobekiago bizi ahal zineten?

Pinocheten garaian ez ginen politikan sartzen ahal. Atzerritarrek segituan kanporat botako gintuzten. Ez naiz deustan sartzen, ez, ez. Goizeko 05:00etan lanera jaiki eta 00:00etan oheratzen nintzen. Lana bertze-rik ez zen guretzako.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Etxeberri Sarakoaz

«Ez bere garaian, ez gaur ere aitortzen ez zaion garrantzia du alderdi askotatik. Medikua zen, garai hartan erlijiosoa ez zen idazle bakanetakoa, eta erlijio gaiez kanpora ibili zen ia bakarra. Bere lanen balioa aparta izanda ere, XX. mendea arte ilunpean geratu zen».

Mendiguren&Izagirre.



Txomin Jaka-Kortajarena 1906ko abenduaren 19an jaio zen Berastegin. Andoingo eta Gasteizko apaizgaitzietan ikasi ostean, 1932an apaiztu zuen Mateo Mujika gotzainak. Bere lehenbiziko apaiz lanak Nafarreten egin zituen, urtebetea egin aitzin Aiala aldeko Salbantonen ber lanen jardunean segitzeko. Gerra aurretiko urteetan eman zuen ezagutzera Jaka-Kortajarenak bere burua euskal poeta, Euskaltzalekoek-eta eratu Olerki egunetan aurkeztu poesia ugariaren bitartez bereziki, egun Eusko Olerkiak liburu segidak interesatu dagoenari aski ongi eskaintzen dizkiona. Bere lehenbiziko lanak, ordea, *Gymnasium* eta *Argia* aldizkarietan ageri ziren gutxiak gehien. Horietarikoz zenbait, bestalde, aipatu tokietan ez ezik baita *Yakintza* aldizkarian ere 1930-1935 bitartean agertu ziren. Azkenik, olerki saldo eder horrekin bilduma osatu zuen, *Irri bertsoak*, Donostian 1935ean karrikaratu zena. Herri kutsuko lanak dira berastegiar honen olerkiak, bertso-laritzaren teknikekin osatuak hein handi batean bederen.

36ko gerra ankerretik ihesean Argentinara egin zuen eskapi gure poetak. Hantxe apaiz lanekin segitu zuen, Araban bezala, Monez Cazon izeneko hirian, eta modu berean, literatura ez zuen largatu. Galdutako euskal bizitzak lehen baino sakonkiago kitzikaturik, *Euzko Gogo* zein *Boletín Americano de Estudios Vascos* argitalpenetan eman zion jarraipena bere ekoizpen poetikoari, zenbaitetan hitz neurtuko le-
roekin batera haiek are hobekiro ulertzeko azalpenak es-

kaintzen zituela. Francoren diktadura zertxobait laxoturik, berriz ere Euskal Herriko zenbait argitalpenetan hasi zen argitaratzen; esate baterako, *Goiz-Argi* edota *Karmel* argitalpenetan. Urteekin, geroz eta euskara garbiaren defenda-tzaile sutsuago bilakatu zen, diogun honen adibidea Euskarazaintzako paperean 1988an argitara eman zituen hainbat olerki.

Edozein modutan ere, Jaka-Kortajarena ez zen izan euskal olerkaria bakarrik, eta euskararen alorrean beste lan eder bat egin zuen eiki; itzultzailearena, hain zuzen ere. Argentinan zegoela Jose Hernandez hango olerkariaren *Martin Fierro* lan eder bezain konplikatua ezagutu, irakurri, gozatu eta baita

rik trebatuenarendako ere. Al-ta, Berastegikoaren lana ez da filusea. Jose Hernandezek berak euskaldunekin hartu-eman urriak izan bide zituen bere bizitzan, eta nonbait ere, euskara apurak bazekizkien. Txomin Jaka-Kortajarenaren aita Argentinan ibilitakoa zen behar-lanetan, eta semeak, hara joan zenerako, Argentinaren berri maratzaz bazuen edukia. Itzulketa, gainera, nahikoa berandu agertu zen, 1972an hain zuzen ere, ordurako Berastegiko apezka beste argentinaren peto-peto bat zatekeelarik. Hernandezen liburua itzuli izana, bestalde, ez zen erabaki hutsala izan, eta lehenbiziko argitalpenaren mendeurrenaren aitzakiaz jelki zen Ekinen eskutik ere.


Matxin Burdin bere itzulpenik hoberena bada ere, esan behar da Jaka-Kortajarenak itzulpen lan gehiago egin zituela horren aitzinetik. Iberoko Ebangelistaren *Ami vasco* katexima jeltzalearen euskarazko testua 1958an atera zuen, eta zenbait urte berandua-go, 1963an espreski, Enrique Garcia Vellosoren *Gernikako Arbol*a. Horiez gainera, euskaraz erdaraz hitz egin ondoren, Argentinatik bueltan, adinean sartuta eta sorterrian behin betikoz kokaturik, *Erlezaintza* izenburuko saila eman zuen argitara 1988an, 2.000 orrialde baino gehiagoko liburutzarra, Karda-beraz Bazkunak ateratzen ziotena. Txomin Jaka-Kortajarena 1993an hil zen, eta azken egun arteraino izan zitzaigun euskal idazle, ekintzak lekuko: hil hurren zegoela, 90eko hamarkadaren hasieran hortaz, *Bizitzan bi goiasmo* liburu autobiografikoa eta *Rh ezezkorra euskaldunetan* ikerketa eman zituen argitara.

euskaratu ere egin zuen osoki. *Matxin Burdin* 1.193 ahapaldi-ko gautxo-poema Buenos Airesko Ekinekoek eman zuten argitara. Ataungo Bonifazio kaputxinoaren hitzaurre batekin. Honetan ataundarrak ez zigun ziria sartu «Alik obekien euskaraturik ere, *Matxin Burdin* ez da inoiz *Martin Fierro* berbera izanen» esaten digunean; izan ere, arras lan zaildua eta konplexua baita Hernandezek egin zuena, Panpako gautxoaren hizkuntza berezian egin baita, arras testu zaildua gaztelaniazko irakurle-



Gaitzetsa gaitzesle: «Orix»

Patziku Perurena



ORIXERI UMETAN «gaitzetsa» deitzen omen zioten Uitzin, eta huraxe izan zuela uste dut bere biziko eskolarik sendoe-na. Bestek gaitzetsia izatetik ikasi zituen gauzarik barrene-nak, eta gero, berak ere, gaitzetsi behar zena gaitzetsiz erakutsi bere alderik zaildue-na. Modernismoaren gaitzik haundiena horixe izandu bai-ta: «gaitzespen sanorik» egite-ko ahuldadea. Izan ere, gaitzetsia izatetik ikasi ez due-nak, ez baitaki gaitzetsiz irakasten. Horra gizadiak gal-duxe duen eskola klasikorik zuhurrena.

Orain laubost urte hala esaten zidan Txonkoneko Mielek Uitzin: «Orix orrek kaska-llu samarra izan behar zun. Emen ba men zen mutil bat lasterkako apizio izuarrie zekarrena, ta Orix orrengana joan beñ kontseju eske, ta: Ya intzak orrako or lasterren. Lasterka ibillazi emen zun pixkoaten, da: Aski dok. I ez haiz sekule lasterkari taiukoa atea-ko». Jakina, Txonkok ere, aurreko uitziaz askok bezala, Orix gaitzetsi beharra zeu-kan: «esan ein behar da gero ori!». Noski, esan egin behar dela: horretxek ematen baitio bere nortasun agiria Orixeri, eta edonori, gaurko edozein sikopatak besterik uste izana-rren.

Txillardegi eta, bide batez, euskal modernaje paxajor guziari egin ziona da bestea. Hona beraren hitzak: «Orix-eren lanak ezagutzen genituen, ez Nikolas Ormaetxea bera. Guatemalatik 66 urtetan etor-tzean, euskaltzaleen gidari famatua buruz-buru ezagu-tzeko aukera izan genuen. Eta ni neu bederen, areago finka-tu nitzan lehenagoko nere susmoetan: Orix ez zan, nere ustez, euskal intelektualen-tzako buruzagi egoki bat, eza gutxiagorik ere.

«Operatu berria zan Orix, Ategorrietako klinikan, eta

ikustamen bat egitera joan gintzaizkion nere emaztea eta biok. Sartu gera, agurtu dugu; eta... noski, guk euske-raz. Orixek behin eta berriz erdaraz erantzun! Ezin sine-tsizkoa! Lotsaturik eta amo-rraturik, halako batez, odola zirakidala, hau esan nion: «Adi zazu, Orix; euskeraz ere badakigu». Orixek ez zuen nere ziria ulertu ere egin; eta ez zuen ezer funtsezkorik erantzun. Eta ikustaldia bukatu arte emazteak eta nik biok euskeraz eta Orixek ekin eta ekin erdera hutsez!». Nork nori, ordea, ziria? Hamaika aldiz berritu du pasadizo hori Txillardegi, baina, inork ezin ikusi Orixeren aldetik. Bai, gure mixeria, itsumen moder-no horixe duzu. Eta zer egin, eskola zaharretik, gaitzespen sanotik, ikasten ez dakien jendajeari?

Alvarezek bere bostetan segitzen du: «Oso gertaera xumea izanagatik ere, susmo berberak iradoki zizkidan Lei-tzeko pasadizo txiki batek. 1957ko Abendua zan, eta Lei-tzera bilduak ginen euskaltza-leok: euskaltzain egiten zuten Orix egun hartan. Honen eus-kal hitzaldia hasi da. Aretoa gainezka, eta zarata han eta hemen. Atzekaldetik ezin entzun, itxuraz. ¿Qué? ¿No se oye ahí atrás? Orixek goratik galde. Entzule guziok, esan beharrik ez, euskaldunak, euskaltzaleak, gure artean ipartar euskaldun talde bat, Labeguerierekin etorria. Holakorik? Txundituta ni, zurtuta». Imajinatzen dut atze hartan, euskal modernaje itsua (gaur bezalatsukoa) zeinen ederki gaitzetsi zuen Orixek. Alferrik ordea: Txillardegi, Labeguerie eta enparauek ez zioten aditu: ¿Qué? ¿No se oye ahí atrás?

Zenbat holako gaitzespen eder ote du Orixek, bere bizi-tzan eta literaturan. Eta ikas-lerik inor ez. Zer espero liteke, ordea, bere burua gaitzesten ez dakien herri «gizajo txulotu» batengandik?

Ziria

• Motxorrosolo •

Txikia


HANDIENA, ZUTIK DIRAUTENEN ARTEAN ZAHARRENA. ERRE-ferentzia urri ziren garaietan, hedatoki. Bestelako fun-tzioak berenagatu ditu. Euskalgintza onddoen sindromeaz jota dagoen honetan, kudeaketaz ezer irakasteko badu. Ikasleak ez, ikasteko gogoia falta gurean.

Maria Huarte

IRUÑEKO ORFEOIKO ESKOLANIAKO KOORDINATZAILEA

«Haurrek musikaz goza dezaten nahi dugu»

Azken urteotako krisia atzean utzi eta proiektu berrietan murgildu nahi du Iruñeko Orfeoiak. Proiektu berri horietako bat joan den irailaren erdialdean jarri zuen martxan abesbatzak: eskolania, alegia. Zazpi eta hamabi urte bitarteko 70 bat neska-mutil bildu dira eskolanian. Maria Huarte da koordinatzailea.



soslai

● MIKEL SAIZ

ESKOLANIA «PROIEKTU ZORagarria» da Maria Huarterentzat. Haurren abesbatzaren bidez Nafarroan zegoen hutsunea bete nahi du, eta, modu horretan, hezkuntza musikala txikitatik jorratu. Eskolania harrobia egiteko modua dela azpimarratu du, halaber, etorkizunean orfeoi gazte eta nagusirako abeslariak sortzeko asmoz.

■ Nola funtzionatzen du eskolaniak?

Haurrek abesten ikasteko aukera dute eskolanian, arnasa hartzen ikasten dute, eta, horrekin batera, hizkuntza musikala irakasten diegu, ga-

rrantzitsua baita musika irakurtzen ikastea. Jende asko musika irakurtzen jakin gabe ailegatzen da orfeoiri eta hutsune hori bete egin behar da. Asteaz hiru orduz egoten dira haurrak eskolanian, bi egunetan. Hizkuntza musikala lantzen dugu lehendabizi, eta, ondoren, abesbatzaren lana jorratzen dugu.

■ Zenbat haur dituzue, eta zenbat irakasle zarete?

70 bat neska-mutil ditugu, eta hiru irakasle gaude. Hala ere, oraindik haur berriak ailegatzen ari dira. Guk atea irekita dauzkagu. Lana banatu egiten dugu. Nik hizkuntza musikala lantzen dut, eta abesbatzaren lana hiruren artean egiten dugu. Oraindik ez dugu erabaki etorkizunean eskolania nork zuzenduko duen.

■ Etorkizunerako harrobia lantzea da zuen helburua?

Bai, ideia horrekin sortu zen eskolania. Asmoa da eskolaniako haurrak gero orfeoi gazte pasatzea, eta handik, orfeoi nagusira. Hala ere, hori ez da gure helburu bakarra. Eskolanian dauden haurrek musikaz goza dezaten da guk nahi duguna, ongi pasatzea, eta jarraitu nahi duten bidea musika bada, aukera bat eskaintzea.

■ Eskolania martxan jartzea

Iruñeko Orfeoiaren abestea zer den badaki Maria Huarterek, orain abesbatzako kide ez bada ere, urte askoan orfeoi kantari izan baita. Alfonso Huarter zuzendaria, gainera, anaia du. Kontzertu berezietan, dena den, parte hartzen du.

Orfeoiaren eta eskolanian lan egiteaz gain, Iruñeko Joaquín Maia musika eskolan ere ari da Maria Huarterekin. Hizkuntza musikaleko irakaslea da, eta, horretaz gain, piano jolea ere bai.

Eskolania koordinatzeko ardura bere gain hartzea Iruñeko Orfeoiari itzultzeko aitzakia izan da Maria Huarterentzat. Bere proiektu kutuna dela azpimarratu du musikariak.

erabaki zenutenean hain erantzun ona izatea espero zenuten?

Nik uste dut Iruñeak horrelako proiektu bat izateko behar handia zuela. Joaquín Maia kontserbatorioan lan egiten dut eta, han, urtero, haur asko gelditzen da kanpoan denentzako lekurik ez dagoelako. Beraz, ez nintzen gehiegi harritu hainbeste haur eskolanian parte hartzeko prest zegoela ikustean. Jende askok abestu nahi du,

baina haurrentzat ez dago deus, ez dago ikasten has daitezen zentrorik.

■ Formaziorako dauden zailtasun horiek nabariak dira orfeoi beste abesbatzetan, hau da, jende helduagoren artean?

Bai, nabaritzen da. Jende asko ailegatzen da ikasketarik gabe, eta beste asko orfeoi hurbiltzera ere ez dira ausartzen abesten ez dakitela uste dutelako. Baina nork esan die abesten dakiten edo ez? Gauza bat da ahotsa hezita ez edukitzea, eta beste gauza bat da abesten ez jakitea. Haurrekin hutsune hori bete nahi dugu.

■ Eskolaniaren helburu bakarra formazioa da, ala kontzertuak emanen dituzte haurrek ere?

Bai, gure helburua hori da, ahal duten bezain pronto jendaurrean abesten hastea, baina ez da erraza. Lehen urtea da, eta oraindik lan asko dago egiteko.

«Haurren erantzuna oso ona izan da, pozik etortzen dira; eskolak haien zentzuzkoak direla uste dut, eta, oro har, kontent daudela»

■ Irailaren erdialdean hasi zineten lanean: nolakoa izan da orain arte haurren erantzuna?

Oso ona, pozik etortzen dira. Arnasa lantzen ari gara orain, eta ongi pasatzen dute. Eskolak haien zentzuzkoak direla uste dut, eta, oro har, kontent daudela.

■ Eskolania eta orfeoi gaztea sortu berri dituzue, gerente baten esku utzi duzue kudeaketa... Badirudi Iruñeko Orfeoiaren azken urteotako krisia atzean uzten hasi dela.

Bai, urratsak egiten ari gara, baina ez da batere erraza izan. Gerenteari dagokionez, oso urrats garrantzitsuak izan da, orain arte denon artean egiten baikenuen lan hori. Borondate ona izan arren ez da batere erraza. Arlo artistikoari dagokionez, aurrerapausoak egin ditugu, denon lanari esker, eta espero dugu aurrerantzean jendeak gehiago ezaugutzea egiten duguna. Hilaren 26an, adibidez, kontzertu berezia emanen dugu Iruñean, NUPEko pabilioian, Beethovenen Bederatzigarren sinfonia, alegia; aurretik, hilaren 11n, Palman emanen dugu kontzertu bera, eta, ondoren, beste hainbat hiritan.

→ Edurne Elizondo



Lezaun - Urbasa

Hostal hau alokatu nahi dugu.

✓ Jantokia, sukalde, taberna, logelak...

✓ Berehala lanean hasteko behar den guztia du.

Interesatuak dei dezatela telefono honetara:

655 700 132



Nafar Kronika

Pello Argiñarena

Jaurtika

Jaurtiketa klase anitz ikusteko parada izan dugu Olinpiar Jokoe-tan: disko jaurtiketa, mailu jaurtiketa, pisu jaurtiketa eta xabalina jaurtiketa, besteak beste. Sydney ez bezala, Nafarroan oso bestelako jaurtigaiak erabiltzen ditugu: Marcillan, aspalditik, *Rabiosa* edo aitzurraren jaurtiketa egiten da. Aurtengoan, ordea, marka guztiak hautsi dira: batetik, Larunben, 14,5 kiloko eskorga edo karretilaren jaurtiketa txapelketa egin dute; bestetik, Garesen, telefono mugikorraren munduko lehenengo eta azkeneko jaurtiketa txapelketa antolatu da, helburu terapeutikoen aitzakian, hau da, estresaren kontrako ariketa moduan. Txapelketa horiek oraindik ere nazioarteko homologaziorik ez dute lortu, baina agian Atenasko Olinpiar Jokoe-tan nafar jaurtitzaileek parte hartzeko aukera izanen dute.

Horretaz gain, gure inguruan aurrera jarraitzen dute ongi ezagunak diren bestelako jaurtiketa txapelketek: militarrek bonbak Bardean, espainiar nazionalistek Lizarrako Ituna, Ivan Rosadok penaltiak Sadarren, kaputxadunek koktelak kutxa automatikoetan, Yolanda Barcinak autoak Karlos III.a etorbidean, botere mediatikoeak manipulazioak eta gezurrak hedabideetan, Pedro Pegenautek Vascuenceren Legea, Poliziak pilotak eta ke-poteak kaleetan, Cesar Palaciosen txupinazoa sanferminetan, ETak tiroak Berriozarren, Santiago Cerverak errezetak botiketan, San Fermin Txikin edalontziak Nabarrerian, Juan Cruz Allik txapelak El Calin, garraiolariak erregea errepedeetan, Gabriel Esparzak malkoak Sydney, zuhaitzek hostoak udazkenean...

Amaitzeko, Carlos Cristobal PSNko Nafarroako Legebiltzarreko bozeramaileak jaurtiketako hitzak nabarmentzeko modukoak direla uste dut: EHk aurkeztu dituen ekimen eta mozio guztien aurka bozkatuko dute eta ez dute eztabaidetan parte hartuko eurekin ados egon arren. Jaurtiketa demokratiko paregabea, duda izpirik gabe.

gure aukerak

MUSIKA

- **Zizur Nagusia:** Arcanda taldea Kultur Etxean ariko da gaur, 22:00etan.
- **Tafalla:** Soblind taldeak joko du gaur, 23:00etan, Gabalze-ka tabernan.
- **Gares:** The Company of Snakes eta Soblind taldeek bihar, 22:00etan, Gares aretoan joko dute.

DANTZA

- **Barañain:** Igandean, Nafarroako Dantzarien Egunaren baitan, kalejira (10:00), dantzarien desfilea (12:00), dantza ikuskizuna (12:30, aintzirako anfiteatroan), eta dantzaldia (17:00, udaletxe plazan) egingen dute hainbat dantza taldek.

ANTZERKIA

- **Etcharri-Aranatz:** Bihar, Txamus-kina taldeak *Katua eta kaioa* haurrentzako lana eskainiko du, 18:00etan, Kultur Etxean.
- **Bera:** Bihar, Pil Pil konpainiak *Vole la Vie, Bizia airez-aire* klown-antzezlanak aurkeztuko du, 20:00etan, Kultur Etxean.
- **Barañain:** Asteazkenean, herriko 15 haurrek txotxongilo antzezlanak eskainiko dute euskaraz (17:00) eta gaztelaniaz (18:00), Kultur Etxean.

HITZALDIA

- **Iruñea:** Gaur, 13:00etan, NUPEko gelategiko 08 gelan, *Las diferentes tradiciones del socialismo histórico vasco* izenburuko hitzaldia emanen du Luis Castells Artetxe EHU-ko irakasleak.

KIROLA

- **Otsagi:** Ostegunean, 19:00etan, herri kirolen era-

kustaldia egingen dute herriko plazan (frontoian, euria eginez gero). Zama, harria, altuerako ebaketa, txingak eta ingude probak izanen dira.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Gaur da *Euskara eta kultura Nafarroan* erakusketaren azken eguna. Kultur Etxean, 18:30etik 20:30era.
- **Zizur Nagusia:** Iker Serranoren margolanak (ikus daitezke Kultur Etxean, gaur eta bihar (19:00-21:00) edota igandean (12:00-14:00).

IKASTAROAK

- **Etcharri-Aranatz:** Udak ikas-turte berrirako ikastaroak antolatu ditu: oinarritzko sukaldaritza, gorputz masajea, eskulanak, lentzeria, soinketa, dantza eta yoga. Izena gaur eman behar da, Kultur Etxean edo 948-460930 telefonoan.
- **Berriozar:** Euskalerria Irratiko teknikari Ibon Gaztanbidek irratigintza lantegia zuzenduko du, euskaraz, urriaren 7, 21 eta 28an, 11:00etatik 14:00etara. Gaur duzu izena

emateko azken eguna, 948-300015 telefonoan.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Bihar Arkakusoen Azoka Ttikia egingen dute, 10:00etatik aurrera, San Jose plazan. Antigoaleko eta bigarren eskuko gauzak saldu edo trukatzeko ahal dira.
- **Erriberri:** Asteazkenean, EVENAN, *Bakoren Soinuak* ardo dastaketa egingen dute, 20:00etatik aurrera, Camerata 2000 taldearen laguntzaz. Erreserba egiteko deitu 948-210347 telefonora.

• MIKEL SAIZ



Kontsumismoa

«Behar ez diren gauzak ere kontsumitzeko joera, kapitalismoaren eta kontsumo-gizartearen ezagarri dena» (Klaudio Harluxet Fundazioko entziklopedia). Behar ez diren gauzak?, ere?! Tira, egon da hor nonbait behar diren gauzak soilik kontsumitzen dituen. Bai, ez? Eta kontsumitzeko joera soila ez da kontsumismo? Zehaztasunak goiti-beheiti, kontua da Iruñerrian geroz eta aukera gehiago ditugula Harluxeten definiziora heltzeko, hau da, behar ez ditugun gauzak erosteko, edota behar ditugunak merkeago erosteko. Eredu handiko merkaturune berria ireki zuten iragan astean Iruñean. Eta, noski, izugarritzko arrakasta erdietsi du. Eta bertze biak, ziurrenik, ez ziren hustuko, guztiendako lekua baitago antza. Asmatuko ote dute inoiz megamerkatua?, eta gigamerkatua?